

ADINGABEEN BABESA		
DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA		
EPIGRAFEA	OINARRIZKO INFORMAZIOA	INFORMAZIO XEHATUA
Arduraduna	Administrazioarako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia	<p>Administrazioaren eta Gizarte Sustapeneraren Zuzendaritza Nagusia, Ugaskobidea 3 bis, 48014 Bilbo.</p> <p>Datuen babeserako delegatua: Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atala - Kale Nagusia, 25- 48009 Bilbo.</p>
Xedea	Adingabeen babesa.	<p>Emandako datuak beharrezkoak dira babesgabetasun arriskuan edo egoeran dauden adingabeen babesera bideratutako neurriak kudeatzeko.</p> <p>Datu pertsonalak honako helburu hauetarako erabiliko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bakarrik dauden adingabeen (Estatukoak zein atzerritarrak) babesgabetasun egoera posiblea baloratzea. • Egoera bakoitzerako babes-neurri egokienak onartu eta formalizatzea. • Adingabeekin eta beren familiekin jarraipena egitea eta gizarte- eta hezkuntza-arloetan eta/edo psikologia- eta gizarte-arloetan esku hartzea. • Adingabeei arreta emateko baliabideak kudeatzea (harrera-zentro eta -familiak, adopzioa eta esku-hartze eta babeserako programak). • Atzerriko adingabeentzako aldi baterako egonaldiatarako (osasun- edo medikuntza-arrazoak, oporrak edo eskolatzea direla eta) txostenak egitea. • Adoptatuak izan diren pertsonen beren jatorriaren bilaketan egiten duten informazio-eskaerari erantzutea. <p>Ez dira erabaki automatizatuak hartuko zure datuak oinarri hartuta, eta datuak ez dira erabiliko zure pertsonari buruzko profil bat egiteko.</p>



<p>Legitimazioa</p>	<p>Botere publikoek erabiltzea, legezko eginkizunak betetzea eta eskaerako sinadurarekin adierazitako berariazko baimena.</p>	<p>Zure datuak honako lege hauetan aurreikusitako botere publikoen eskumenen jardunean ere erabiliko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuari buruzkoa. • 27/1983 Legea, azaroaren 25koa, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremani buruzkoa. • Kode Zibila. • 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa, adingabearen babes juridikoari buruzkoa. • 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak babesteari buruzkoa. • 54/2007 Legea, abenduaren 28koa, Nazioarteko adopzioari buruzkoa. • 4/2000 Lege organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa. • 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. • Aplikagarria den indarreko beste edozein araudi. <p>Honako kasu hauetan, eskaeraren sinadurarekin indarreko araudiari jarraikiz beste iturri batzuetara sartzeko baimena ematen duzu, xede hauekin: beste administrazio batzuek egindakoak diren edo aurretik aurkeztutakoak diren datu edo dokumentuak ez aurkezteko eskubidea bermatzeko; zure nortasuna, eman dituzun datuak benetakoak direla eta araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, gizarte zerbitzuen arreta osoa eskaintzeko eta sistemaren zerbitzu eta prestazioen iruzurrezko erabilera saihesteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Adopzioarako eta familia-harrerarako eskaintzak. • Inguruabar larri eta iragankorrak direla-eta adingabeen zaintza bere gain hartzeko eskaerak. • Atzerriko adingabeentzako aldi baterako egonaldietarako (osasun-tratamendua, oporrak edo eskolarizatzea direla eta) txostenen eskaera. • Pertsona adoptatuen jatorriaren bilaketa. <p>Ez badira eskaturiko datuak ematen eta sarbide horiek baimentzen, ezingo da zure eskaera izapidetu.</p>
<p>Datuen kontserbazioa</p>		<p>Zure datuak azalduko helbururako beharrezkoak diren bitartean gordeko dira eta, kudeaketa amaitzen denean, nahitaez bete behar diren lege edo arauak ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko legez ezarritako epeetan zehar, edo agintaritzaren eskudunaren aginduz, zuzenbidearen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari zeregin hori ezartzen zaionean.</p>
<p>Hartzaileak</p>	<p>Zure datu pertsonak emango dira legezko betebeharrak horrela ezartzen duenean edo zuk horretarako baimena eman duzunean.</p> <p>Legez ezarritako mugei jarraikiz edo zure baimenarekin bakarrik transferituko dira zure datu pertsonalak hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara.</p>	<p>Datu pertsonalak legez ezarritako mugekin jakinaraziko dira, edo zuk honako hauei baimena ematen diezunean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko udalei, Eusko Jaurlaritzaren eskudunak diren sailei, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari, beste erakunde batzuei, edo osasun-erakundeei, fiskaltzari, epaitegiei eta arlo honetan eskumena duten Estatuko beste erakunde batzuei. • Beste edozein erakunde edo herri-administrazioari. <p>Legez ezarritako mugei jarraikiz edo zure baimenarekin bakarrik transferituko dira zure datu pertsonalak hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara (hirugarren herrialdeetako kontsulatuak, enbaxadak eta beste edozein erakunde edo herri-administrazio), betiere, adingabe atzerritarren nazioarteko adopzioarako espedienteak izapidetzeko eta adingabe baten babesa bermatzeko beharrezkoak diren.</p>



Eskubideak	Zure datuetan sartu, datuok zuzendu edo ezabatzeko eskubidea edo datuen tratamendua mugatu edo tratamendu hori aurkaratzeko eskubideak. Horretarako, idazki bat bidali beharko duzu Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera.	Tratamenduaren arduradunaren aurrean balia dezakezu zure datuetan sartu, datuok zuzendu, aurkaratu, ezabatu edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea, idazki bat bidalita Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari. Leku hauetan aurkez dezakezu idazkia: <ul style="list-style-type: none">• Laguntza – Bizkaiko Foru Aldundiko Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoan, Diputazio kalea 7, beheko solairua, 48009 Bilbo.• Bizkaiko Foru Aldundiko sailtako erregistroetan eta eskualdeetako bulegoetan. (Helbideak hemen kontsulta ditzakezu: http://web.bizkaia.eus/eu/erregistro-puntuak).• 39/2015 Legean adierazitako lekuetan. Eskubide horietakoren bat baliatzeko aukera mugatu egin daiteke bateraezina denean botere publikoen jardunarekin edo aplikagarria den araudiaren arabera legezko betebeharrak betetzearekin. Horrez gainera, interesdunak eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa).
Datuen kategoria	Identifikazio-datuak, egoitzari eta inguruabar pertsonalei buruzko datuak, banku- zein finantza-datuak eta ekonomia- eta ondare-datuak eskuratu ahalko dira; bai eta datu genetiko eta biometrikoak, sexu-orientazioari eta sinesmen erlijiosoei buruzko datuak, osasun-datuak eta zigor-delituei buruzko datuak ere; betiere, ezarritako legezko mugak errespetatuz.	Identifikazio-datuak, egoitzari eta inguruabar pertsonalei buruzko datuak, banku-zein finantza-datuak eta ekonomia- eta ondare-datuak eskuratu ahalko dira; bai eta datu genetiko eta biometrikoak, sexu-orientazioari eta sinesmen erlijiosoei buruzko datuak, osasun-datuak eta zigor-delituei buruzko datuak ere; betiere, ezarritako legezko mugak errespetatuz.
Jatorria	Interesduna edo bere ordezkaria eta beste zenbait administrazio, erakunde, erregistro edo erakunde publiko eta pribatu, legez ezarritako mugen barruan.	Identifikazio-datuak, egoitzari eta inguruabar pertsonalei buruzko datuak, banku-zein finantza-datuak eta ekonomia- eta ondare-datuak eskuratu ahalko dira; bai eta datu genetiko eta biometrikoak, sexu-orientazioari eta sinesmen erlijiosoei buruzko datuak, osasun-datuak eta zigor-delituei buruzko datuak ere; betiere, honako iturri hauetan ezarritako legezko mugak errespetatuz: <ul style="list-style-type: none">• Interesduna edo bere ordezkaria.• Poliziaren Zuzendaritza Nagusia.• Bizi deneko udalaren eroldaren bulegoan.• Estatistika Institutu Nazionala.• Justizia Ministerioa.• Udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.• Gizarte zerbitzuak ematen dituzten erakunde eta zentroak.• Erregistro Zibilak.• Gizarte Segurantzaren Nazio Erakundea eta pentsioak eta bestelako ordainketak egiten dituzten erakundeak.• Finantza- eta aurrezki-erakundeak.• Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua eta beste herri administrazio batzuetara atxikitako edo haien menpeko gizarte esku-hartzearen arloko beste erakunde batzuk.• Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.• Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo eta Gazteen Justizia Saila.• Ogasun eta Finantza Saila eta beste zerga agentzia batzuk.• Jabetza erregistroak.• Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua.• Datuen kategoria horiek dituen beste edozein erakunde edo herri administrazio.• Hirugarren herrialdeetako kontsulatuak, enbaxadak eta beste edozein erakunde edo herri-administrazio.



Informazio xehatua	https://www.ebizkaia.eus/eu/izapideen-katalogoa , dagokion prozeduran.	
-----------------------	--	--